

## GUK 16. Durango

2022-10-25

Hartutako erabakiak:

- Gurasoentzako formakuntza:
  - Kontrol parental ezberdinei buruzko ikastaroa.
  - Gure seme-alabek erabiliko dituzten aplikazioen ikastaroa. Ezaugarriak, ezarpenak, zertarako erabiltzen dituzten. Tic-tic, instagram, whatsapp... Gazteen artean erabilienak direnak.
- Ikastolako Hezkidetzeta taldearekin lankidetzan Jose Luis Garciarekin (Psikologian doktore eta sexologoa. Pornografia gaietan aditua) pornografiaren kontsuamoari buruzko ikastaroa antolatu nahi dugu gurasoentzat.
- Aditu batekin hitz egingo dugu gure seme-alaben formakuntzan sakontzeko. Adin bakoitzean zer landu beharko litzatekeen. Jasotakoaren arabera, haienzako ikastaroren bat antolatu beharko genukeen hausnartuko dugu. Erreferente positiboak izan ditzaten garrantzitsua da.
- Badira urteak ikastolan digitalizazio prozesua eman eta geletara ordenagailuak sartu zirela. Bada ordua horren balorazio bat egiteko ikastola mailan. Horren eskaria egingo diogu zuzendaritzari eta artezkaritzari.
- Aurten ordenagailuak sartu dira gure etxeetan eta interesgarria iruditu zaigu etxean erabilera egokia egin dezaten, erabiltzen ditugun praktika onak biltzea eta gurasoen artean partekatzea gure artean lagundu ahal izateko.
- Teknologien erabilera egokiaren dekalogoia bukatu eta sozializatu.
- Gela barruan ordenagailuekin egiten den erabilera ez dugu gurasoek ongi ezagutzen. Zenbat ordu, zein ikasgaietarako, egunero etxera ekarri behar duten... Ordenagailuak jasotzen ditugunean informazio hori jasotzea garrantzitsua da.
- Gure artean konpromiso orririk ez sinatzea erabaki dugu. Taldea egonkorra da, eta helburuetako bat familia gehiago hausnarketara batzea da. Konpromiso orria egoteak familia berriak hurbiltzea zaildu dezake. Ezagutzen dugun antzeko beste proiekturen batean erabiltzen dute, baina gurean ez dugu beharrezko ikusten.
- Batzarretako aktak publiko egingo ditugu, ikastolako gainontzeko familiek gure lanketak ezagut ditzaten.

- Beste mailetan GUK16 talde berriak sortzen saiatzea, gurasoen digitalizazioaren lanketa ikastolako identitatearen parte bihur dadin.
- Web orriko Guk 16 edukiontzia elikatzen jarraituko dugu, gaiari buruzko artikulua, ikerketa, ikus-entzunezko... interesgarriak ikastolako komunitatearen esku jartzeko.
- Ekainean batzarra lotzea oso zaila izaten da, horregatik, ikasturte honetako azken batzarra Aste Santu ostean egitea onartu dugu.